



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/11/06



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

2025EKO IRAILAREN 24AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko irailaren 24an, arratsaldeko 18:30tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildudira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoza Ikatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, M^a Mar Ansorena, Mikaela Elizalde, Javier Auza, Alaia Etayo eta Iker Isiegas.

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du gai zerrendan dauden gaiak lantzearekin

GAIZERREDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Abuztuaren 27ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2025/91 alkate ebazpena Alaia Etayo Oronoz eskuordetzea 2025/1 zenbakidun ezkontza zibila egiteko.

- 2025/92 alkate ebazpena obra baimena onartu Gartzarongo Asuncion 6 helbidean dagoen etxebizitzaren teilatu hegaleko solairuaren egiturazko erreforma egiteko.

-2025/93 alkate ebazpena obra baimena eman Berueteko 12. Poligonoko 22. Lursaileko etxearen fatxada margotu, teilatu hegalek barnizatu eta balkoia konpontzeko.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/11/06



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

-2025/94 alkate ebazpena Amaia Oloriz, haur eskolako hezitzaileari baimena ematea , amatasun edoskitze orduak metatzeko irailaren 26tik urriaren 18ra eta eszedentzia baimena onartzeko 2025eko urriaren 20tik 2026ko uztailaren 6ra, adin txikikoen zaintzagatik.

-2025/95 alkate ebazpena onartuz 2025. urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 8479 HLZ matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

-2025/96 alkate ebazpena onartuz 2025. urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 4345 GCJ matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

-2025/97 alkate ebazpena Jose Ignacio Arribasi aurkeztutako 9000 euroko aurrekontua onartzea, Basaburuko udal-plana behin-behinean onartzeko dokumentazioa osatzen duen GIS dokumentua egiteko.

-2025/98 alkate ebazpena onartuz Argimalutak aurkeztutako eskaera eta baimena ematea Aizarotzko Luzia Goñi Kultur Etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzea, urriaren 6tik ekainaren 22ra, yoga ikastaroa emateko asteleheneta, 18:30etatik 20:00etara.

-2025/99 alkate ebazpena onartuz Irati Munduate Apariciori Apeztegiberriko eraikinaren bigarren pisuko erabilera anitzetako gela erabiltzea, 2025eko urriaren 6tik 2026ko ekainaren 26ra pilates, dantza urbanoa eta ballet ikastaroak burutzeko

-2025/100 alkate ebazpena onartuz Leitzaldeko IKA Euskaltegiak egindako eskaera eta hortaz baimena ematea Aizarotzko Kultur Etxeko erabilera anitzetako aretoa erabiltzeko eskaera, 2025eko urriaren 2tik 2026ko ekainaren 22ra euskara ikastaroa egiteko astearte eta ostegunetan 10:00etatik 21:00etara.

-2025/101 alkate ebazpena onartuz Oihana Fernandez Iturrik aurkeztutako eskaera eta baimena ematea Aizarotzko Luzia Goñi Kultur Etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzea, 2025-2026 ikasturteko ostiraletan 18:00etaik 21:00etara kantu klaseak emateko.

Aizarotzko kultur etxeko gelen erabileraren inguruan bildutakoek galdetzen diote alkateari zergatik kontzejuak ez dituen kudeatzen. Alkateak erantzuten du momentuz eta tasen ordenantzaaren tramitazioa egin arte erabaki zutela bi aldeek udalean egitea eskaera, sarrera erregistroan islatzeko eta kontzejuko ordezkarien baimenarekin udalak onartuko zituela eskaerak. Ondoren udalak tasengatik kobratzen duena kontzejuari ordainduko dio.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Itsasoko 4. Poligonoko 496 eta 497. Lursailetarako xehetasun azterlana. Behin betiko onespena.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/11/06



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

Alkateak azaltzen du hasierako onespina uztailaren 30eko batzarrean eman zitzaiola xehetasun azterlan honi. Helburua da lursail horretan egin nahi den etxearen lerrokadurak aldatzea mugara dagoen distantzia 4 metrotik, 3 metrora pasatuz.

2017/1 Lurralde Antolamendua arautzen duen testu bateratuaren 74. Artikuluaren arabera, hasierako onespeneko erabaki hau abuzturen 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta irailaren 11a arte egon da jende aurreko epean espedientea. Epe honetan ez dira alegazioak jarri hortaz behin betiko onespina onartzea dagokio udal batzarrari.

Hortaz eta 2017/1 Lurralde Antolamendua arautzen duen testu bateratuaren 74. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez onartzen dute behin betikoz Itsasoko 4. Poligonoko 496 eta 497. Lursailetarako aurkeztutako xehetasun azterlana. Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzen dute bildutakoek.

4.- Beramendiko 2. Poligonoko 41. Lursailerako xehetasun azterlana. Behin betiko onespina.

Batzar berean ere Beramendiko 41. Lursailerako xehetasun azterlana ere hasiera batez onartu zela azaltzen du alkateak. Hirigintza instrumentu honen helburua da eraikinaren gehieneko bolumena zehaztea eta hortaz aukera izatea lursaila dagoen eraikina eraberritzen denean aterpe bat eraikitzea etxearen albo batetik bestera.

Udal arkitektoak baiezeko txostena egin ondoren hasiera batez onartu zen eta 2017/1 Lurralde Antolamendua arautzen duen testu bateratuaren 74. Artikuluaren arabera hasierako onspeneko erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, abuztuaren 13ko datarekin. Irailaren 9a arte egon da espediente jende aurrean eta ez dira alegazioak aurkeztu.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute Beramendiko 2. Poligonoko 41. Lursailerako xehetasun azterlana eta erabaki hau sustatzaileari jakinaraztea agintzen dute eta baita ere erabaki honen testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin.

5.- 2025eko plantilla organikoa. Behin betiko onespina.

Hasierako erabakia Basaburuko udal batzarrak ekainaren 25eko batzarrean hartu zuela adierazten du alkateak. Hasierako erabaki hau 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako 235. Artikuluaren arabera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da 15 egun baliodunen epean, alegazioak jartzeko aukera irekiaz. Hasierako onspeneko erabakia uztailaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta abuztuaren 19a arte egon da jende aurreko epean.





SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/11/06



SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

Behin betiko onespena ematea dagokiola plantilla organikoari azaltzen du alkateak, modu honetan geldituko delarik:

2025EKO PLANTILLA ORGANIKOA

ZENBAKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA	SARBIDEA	OSAGARRIAK	HIZKUNTZA PROFILA	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M.O. %28 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Egonkortze prozesua	%12 M.O. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Jardunean
03	Garbiketa zerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., 31,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean
04	Garbiketa zerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., %10,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa	%23,38 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %18,52 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	D	Oposizio lehiaketa, egonkortze prozesua	%12 M.O. %8,35 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean

IZENEN ZERRENDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	GRADU A	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000/03/28	4	%12, %28	Jardunean	%100

LAN KONTRATUDUN FINKOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAIL	ZERBITZU AITORTUEN	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
---------------	-----------	------	--------------------	------------	--------	----------





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/11/06

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

		A	DATA			
Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2008/07/28	%23,38	Jardunean	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2018/09/3	%12, %18,52	Jardunean	%100
M ^a Paz Etxarri Etxegia	Haur eskolako garbiketa	D	2017/11/02	%12, %8,35	Jardunean	%75,34

Begoña Arano Galarza	Garbiketa	E	2024/12/26	%15 ,31,38.	Jardunean	%60,50
Aitor Arangoa Mariezkurrena	Garbiketa	E	2025/01/02	%15 %10,76	Jardunean	%60,50
Oier Legarra Beunza	Zerbitzu anitzetako langilea	D	2024/12/26	%12, %42	Jardunean	%100

6.- Bake epaileren ordezkhoa. Izendapena.

Alkateak gogoratzen du nola izendapen berria egiteko jakinarazpena bidali zela Nafarroako Auzitegi Nagusitik 2025eko ekainaren 23an.

Prozedurari hasiera emateko abuztuaren 7an argitaratu zen izangaiak aurkezteko epea irekitzen zuen iragarkia Nafarroako 157. Aldizkari Ofizialean, abuztuaren 7amn argitaratu zena. Irailaren 5a arteko epea zegoen, hots 20 egun balioduneko epea. epe horretan aurkeztutako pertsona bakarra Burlatan bizi den Zuzendaritzan gradua duen pertsona eta Frantzian Espainiak duen enbaxadan aholkularitza juridikoko praktikak egindakoa.

Basaburuko batzarrak uztailaren 30ean onartu zituen aurkeztutakoen artean balorazioa egiteko irizpideak, honako hauek izan ziren:

Erroldan antzintasuna. 40 puntu. Puntu bat urte bakoitzeko.

Emakume izatea. 10 puntu.

Euskara jakitea. C1 titulua 10 puntu. B2 titulua 5 puntu.

Udalekiko hurbiltasuna. 10 puntu. Modu honetan banatuak: 0-1 kilometro arteko distantzia 10 puntu. 1-5 kilometroen arteko distantzia 5 puntu eta 5etik gorako kilometroen distantziagatik puntu bakarra.

Kasu honetan bakarra da aurkeztutakoa. Bildutakoek honen kurrikuluma ikusita, kontutan hartuta bake epaile izateko baldintzak betetzen dituela Bake Epaileen



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAUR TQA2 ULDR QA7V

2025-09-24 akta - SEFYCU 239058

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

8tik 5 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/11/06



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

Araudiaren 14 eta 15 artikuluen arabera, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute bildutakoek aho batez eta gehiengo osoz:

- **Izendatzea Basaburuko bake epaile ordezeko Iraultza Gillen García Sáez Burlatako bizilaguna.**
- **Erabaki hau eskatzaileari jakinarazi eta Nafarroako Auzitegi Nagusira.**

7.- Mozioak.

Ez dago moziorik.

Gai zerrendatik kanpo Euskara Batzordeko zinegotzia den Iker Isiegasek aztertzeke gai bat duela adierazten die bildutakoek, eta bildutakoek onartzen dute aho batez zerrendan sartzea:

Basaburuko euskararen egoerari buruzko azterketa soziolinguistikoa egiteko aurrekontua.

Irailaren 16an izan zuten Euskara Batzordeko bilera. Bertan erabaki zuten bailarako euskararen inguruko azterketa soziolinguistikoa egitea, azkena 2000. Urtekoa izanik. Lan hori burutzeko aurrekontua 12.200 eurokoa da BEZ kanpo. Azterketa hau 2027an burutuko da eta horretarako diru laguntzak eskatzeko aukera dago. 5 hilabeteko epea beharko lukete lanketa egiteko eta aurreikusten dute 2027ko martxorako egotea egina. Telefonozko inkestak burutuko dira.

Bildutakoek ikusita Euskara Batzordearen erabakia dela ontzat ematen dute eta hortaz onartzen dute Basaburuko euskararen inguruko azterketa soziolinguistikoa egiteko aurrekontua 12.200 eurokoa BEZ kanpo, Siadeko enpresari esleitzuz lanketa hori egitea.

8. - Batzordeen informazioa.

Kultura eta Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Mintzakide taldeak ez du ongi funtzionatzen eta AEKrekin jarraitzea adostu da batzordean baina haien konpromezua da taldearen dinamizazioa hobetzea.

Bertso eskolarako bi talde sortu dira eskualdean.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/11/06



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

Irakurle txikien klubak ikasturte honetan ere jarraituko du eta irakurle zaletasuna bultzatzeko lanketa berezia egingo da eskolan. Etxepare sariko liben aurkezpena ere egingo dute eskolan.

Azaroan bertso afaria antolatuko da, data zehaztu gabe dago.

Kulturarekin lotuta, podcast tailerra burutuko da haurrei zuzendua. Udako ludotekaren emaitza aurkeztu du batzordean euskara teknikariak eta ondorioztatu da orokorrean haien artean umeez ez dutela euskaraz hitz egiten.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Irailaren 6 eta 7an Enduro bizikleta proba burutu zen, 25 hurrek izena eman zuten eta 190 helduek.

Adinduek yoga ikastaroen gutuna jaso dute eta izena eman ere, 14 pertsona daude asteazkenetako ikastarorako eta 17 ostiralerako. Irakaslearekin hitz egingo da ea onartzen diren bi taldeak.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Bi tailer burutuko dira Txokolatero etxean, lehena gimnasia eta memoria tailerra urritik azaroraino, luzatzeko aukerarekin jendea kontent badago eta bigarrena teknologia berrien ingurukoa urrian bakarrik burutuko dena.

Urriaren 7an bilera burutuko du batzordeak I3E enpresarekin eta bertan azalduko dute egin behar duten lanen egutegia eta egoitza kudeatuko duen elkartearen estatutuen aurkezpena egingo dute.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Eskolako berogailua egurrez betetzeko behar den pertsonaren bila daude. Eskolako gela batzuk itxi dira zirkuitoa itxi delako eta irakasle bat kexatu da eta horietako gela bat bereganatu du. Guraso elkarteko bileran familiei laguntza eskatu zien udalari presioa egin eta erabili dezan uzteko. Udalean eskaera egiteko adostu zen bileran baina oraindik inork ez du eskaerarik aurkeztu.

Eskolako beste gela bat adinduen erabiliko dute zeramika tailerra burutzeko.

9.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:

- Cederna Garalurren bilera, zaintzen maparen inguruan, adinduen arartekoaren figura funtzezkoa da mapa honetan, harek daki eskualdeko adinduen egoera. Egunezko egoitzako zuzendariarekin elkar lan zuzena izango du pertsona horrek.

- Betelun bilera izan zen Amavir enpresak kudeatzen duen zaharren egoitza itxi nahi dutelako eta Nafar Gobernuak bilera horretan udalek kudeatzea eskaini zien.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/11/06



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/11/07

Kudeatzaile bezala Beteluko udala ere dago, %34ko parte hartzearekin. Udalek onartuko lukete proiektu hau beti ere Nafar Gobernuak zorrik gabe uzten badie kudeaketa.

-PSTD proiektuak aurrera doaz, aisialdi gunekoa oraindik ezin hasi da CHETik Nafar Gobernuari txosten bat eskatu diotelako baina aldiz baso babeslearen proiektua nahiko aurreratua dabil.

- Hurrengo urteko plantilla organikoari begira zerbitzu anitzetako langilea D mailatik C mailara pasatzeko prozesuarekin hasi behar da. Era berea udal elkartzeko administrari laguntzailearena ere. Garbiketa lanpostuak momentuz E mailan geldituko dira.

- Garbitzaileekin bilera egin du eta ikusita eskolako gela batzuk itxi behar direla arratsaldean galdara egurrez hornitzea eskatu zaie bere lanaldiaren barruan. Zerbitzu anitzetako langilearekin kudeatuko dituzte hemendik aurrera haien lanaren antolaketa eta beharrak.

- Eskolaren inguratzaile termikoaren proiektua 2026ko enmiendetara aurkeztu da.

- Iharduera ekonomikoen guneko argi indarraren proiektuko obrak mantso doaz, kanalizazioa egina dago baina transformadorea oraindik ez dute ekarri, urriaren 30erako ordaindua eta justifikatua egon behar du diru laguntza ez galtzeko.

- Aizarotzko kontzejuarekin bilera izan da eta bertan azaldu udalak haiekin duen zor historikoaren kontua. Ulertu zuten Nafar Gobernutik udalak urte hauetan jaso izan duena zerbitzuak emateko izan dela, argiak, kaleak eta beste...

- Bilera online bat burutu da etxebizitza beharrak aztertzeko eta udal araudiak aldatzeko zein aukera dagoen etxebizitzan egiteko

- Azaroaren 2an egingo da Gaztain Azoka, urriaren 31etik aurrera antolatu dira iharduera, tailerrak eta beste.

- UEMAKo bilera burutu da, bertan 10 urterako plana prestatzen ari direla azaldu zuten, horretarako ere inkesta bat prestatuko dute eta etxez etxe banatuko da. Horren aurkezpen bilera azaroaren 13an egingo da.

10. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:35 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.

